

Karkara

karkara.eus

9c Orioko eta Aiako aldizkaria · 2016ko abuztuaren 28a · 364. zenbakia, 26. urtea



Kanpinteroak, udako oriotarrak

Askok bizi osoa daramate etortzen, herriko kuadrila dute hainbatek eta ez dira gutxi Orion bizitzen geratu direnak.

8

Argazkiak
Uda iruditan

11

Akuilua hartuta
Ander Erasti

14

Argazkiak
Aiako festak

27

Elkarrizketa
Jon Lasa

ARRAINDEGIA

Asteleheneetik larunbatera 08.30-12.30 Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

Kostera

Arrainak
zure arrandegia

EUSKO GUDARI, 4 943 133 580

ADIMEN LEHIAKORRA

Enpresentzako garrantzitsua den informazioa etengabe eta modu sistematikoan eskuratzea ahalbidetzen duen estrategia

ADI UROLA KOSTA!

www.adimenlehiakorra.eus



Enpresentzako Zerbitzuak

www.urpikokosta.eus

Tel. 943890808

UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA



Enpresen arteko konkordetza eta enpresen adimen lehiakora sustatzeko programa

URTEAN **36** EURO

18 DOZENA ARRAUTZ

12 KILO PATATA

950 GRAMO BIXIGU

40 LITRO ESNE

KARKARAKO HARPIDETZA

HARPIDETU

KARKARA.EUS/HARPIDETZA

KARKARA@KARKARA.COM

9438310527

375

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako kolaboratzaileak

Antonio Campos,
Ander Errasti
Idoia Etxeberria,
Xabier Iburguren
Iñaki Iturain,
Olatz Mujika,

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Ibon Berasaluze (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzukiz-
kizunik. KARKARAN argitaratuta-
koa berreman daiteke, osorik
edo zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.



Herri kiroletan aritu da Etxeberria Washingtonen uda honetan. I. ETXEBERRIA

HASI BERTSOTAN

IDOIA ETXEBERRIA (DOINUA: ARI NAIZELA)

Harritik herrira

1

Ohartzerako arrimatu da ezibizio bolara, eta beste behin gogoratu da Idoiarekin KARKARA. Hiru bertsotan esplikatzeko nola dijoan udara, ideia ona iruditu ta bertsu kantuan naiz hara!

2

Astero izaten dugu nahi a(d)ina saio ta ezibizio, zortez oraindik afizioa bihurtzen dut ofizio. Nahiz parranda (e)re izaten dugun earri askotan bizio uztartzen zaila izaten dugu ezta harria(re)n sozio.

3

Uda denbora da plazetako urteko puntu gorena. Euskal Herrian ta Washingtonen zurten a zer gozamina! Plazarik plaza kirolariak emanaz bere onena. Festen moduan bertsotan ere agurrak dakarki pena.

TOKIKOM

375 **Bikain**

LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

arkitektura

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

borja agirresarobe lopetegi
herriko-barru 6. behea
20800 zarautz



AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO



KARELA KIROLDEGIA
IKASTAROAK 2016-17
PAILAREN 12TK URRIAREN 02RA ABONATUZ GERO, MATRIKULA DOHAIN

GURE SAIO BERRIAK: CORE EXPRESS ETA FUNKY-JAZZ.
Animatu zaitetz eta zatoz gurekin ondo pasatzera!!

KARELA Eriberak 1, 20810 Orio • 943 894 426 • orio@bpsport.es

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-

fotorosanaarruti@gmail.com
tel: 943 83 58 45



PIZZERIA
KALETA



ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

le apaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat



Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47

Joana Murgiondo
Aseguru-agenzia

ASEGURUAUK



Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Iturkua Kalea, 4
20800| Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

azkue



Tf: 943 130 438

azkue



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax: 943 53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Errausketarik ez!

Gutako bakoitzaren egunerokoa eta etorkizuna beste batzuen erabakien menpe egotera ohitu gara dagoeneko. Erabaki horiek eta gugan dituzten eraginak, euria edo eguzkia bezain natural eta aldaezinak balira bezala. Leihotik begira eroso gaudela dirudi.

Bitartean etxetik 8 kilometrotara errauskailu bat egitea erabaki dute. Esleitu dituzte obrak. Azkar doa denbora leihoaren kanpoaldean, atzera bueltarik gabe. Bitartean jarraitzen dugu oporretan, irail berri bati zeharka begira: gorputza forman jartzeko asmo berriekin, ikasturte berriaren zain, estropaden uberan... kristal lodiak babestu-

Gutunerako oharrak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

ko bagintu bezala. Baina kontuz! Errauskailuaren keak leihoa pasako du, zure gorputzean sartuko da. Guztion patriketan eta ingurumenean izango dituen eraginez gain, zure osasuna ere zuzenean kaltetuko du.

Gai garrantzitsuegiak iruditzen zaizkigu guri beste batzuen eskuetan uzteko. Errauskailuak erre ez zaitzan, busti zaitez! Lemoiz gelditu genuen, hau geratzea ere gure esku dago. ■ **Orio garbian laberik ez taldea.**

ZORIOTXARRAK!

Etxeluzen lapurtu dutenei

Ez da lehen aldia Etxeluze gaztetxera lapurretara sartzen direla. Baina, azkena, abuztuaren 15ekoa izan da larriena. *Orain arte lapurretak nola ahala bideratu baditugu ere, oraingo honetan hego guztiak moztu dizkigute* esan dute gaztetxetik.

Beste hainbat gauzen artean, erosi berria zuten proiektorea lapurtu zieten. Horrek, abuztuan antolatu zituzten zine emanaldiak bertan behera geratzea ekarri zuen.

Lapurreta salatzeko kartekez bete dute herria. Bestalde, Hatoz, Errusta eta Kolon txiki tabernatan eltxetxoak eta piñak salgai jarri dituzte.

KARKARAREN zoriotxarrak gaztetxea aurrera ateratzeko beren indarrak eta denbora ematen dutenen lana zapuzten dutenei.



EZKONDUTAKOAK

- Iñigo del Hoyo Iraola eta Edurne Aldasoro Gonzalez, Orion, uztailaren 30ean.
- Naiara Iglesias Artekale eta Iker Oskoz Ocio, Orion, uztailaren 16an.
- Leire Etxezarreta Gabilondo eta Jon Ander Maiza Gerriko, Orion, ekainaren 25ean.

JAIOTAKOAK

- Jon Manterola Fernandez, Orion, abuztuaren 3an.
- Aratz Loidi Etxabe, Orion, uztailaren 30ean.
- Martin Landa Lizarralde, Orion, ekainaren 15ean.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



Aiako festak. KARKARA



Moilan bainatzen. KARKARA



Bisiguaren eguna. KARKARA

Beste behin ere udara

S an Joan berderekin hasi eta Kontxa igaro arteko uda sasoi bete-betean gauden honetan, ezin uka herriak beste kolore bat hartzen digunik. Kalera atera eta balkoiei begiratu besterik ez, horia bizi-bizi ikusteko. Eskola bukatuta hartu dituzte kaleak umeek eta Santiagora bidean doazen erromesak ere dozena pasatzen dira egunero plaza eta moila inguruetatik. Ingelesa, frantsesa zein katalana, alemana edo nederlandera entzun litezke herriko kaleetan eta hondartza inguruan, Agorregi aldean edo Iturraranen; turistak nonahi dabilta egunotan. Hondartzazaleak bizikletari hautsa kendu eta pasio ederrean ikus litezke herritik hondartzara eta hondartzatik herrira. Beste askok txu-txua hartzea nahiago, toalla, eguzkitako krema, sonbrila eta hamaka, traste gehitxo dira eta oinez edo bi gurpilen gainean eramateko. Marea goian dagoenetan itsasoan baino erriean bainatu nahiago duenik ere bada, eta hor ibiltzen dira moila bazterretik edo zubitik murgil edo txondo saltoka.

Udan ez da animaziorik falta izaten, ezta jai-girorik ere. Aia eta Orio artean bada bai non aukeratua: Sanpedroak Orion eta Andatzen, bixiguaren festa, Santio festak, Aiako herriko festak... Inguruko herrietakoak ere ezin ahaztu, bat baino gehiago joango zen aurten ere Donostiara suak ikusi eta izozkia jatera!

Sasoi ederra da udara txoko berriak ezagutzeko eta herritik ospa egingo zuenik ere ez da faltako: Salou, Cambrils edo Torrelavega eguzkizale ugariaren helmuga, Pirineoak edo Alpeak, mendizale porrokatuenek; itsas-bidaialdi bat, deskantsua nahi duenak edo motxila hartuta batetik besterako bidaia, abenturazaleek. Etxeko goxoan geratu denak ere izango zuen nahikoa entretenimendu Tourrari, olinpiadei edo estropadei begira.

Egunak laburtzen hasi badira ere, udaraz gozatzeko aukerarik ez da falta oraindik!

Non ibili zara udan?



“Kanpoan egonda, banuen Oriora etortzeko gogoa”

Normalean, futbol denboraldia bukatzen denean segituan abiatzen gara Oriro aldera. Han aste bete egin ondoren, beste aste bat beste nonbait pasatzen dugu. Baina, aurten, oporren erdian koinataren ezkontza genuenez, alderantziz egin dugu.

Lehenbizi formenteran izan ginen astebetetz, eta ezkontza pasa bezain laster Oriora etorri ginen.

Urte erdia kanpoan izan ondoren banuen gogoia familia, lagunak eta herria ikusteko! Emazteari eta semeari ere izugarri gustatzen zaie hona etortzea. Eguraldia, ordea, ez zaie hainbeste gustatzen..

Iker Torre



“Urteko beste edozein hilabete bezala da udara”

Urteko beste edozein hilabete bezala izan da nire udara aurten. Lan egiten dudan ofizina ez da ixten udaran eta lanera berdindin etorri behar izan dut. Lan gutxiago dagoenez, opor egun batzuk hartu ahal izan ditugu txandaka, baina gauza handirik ez.

Jai egun horietan bidaiatzea gustatzen zait eta kanpora joaten ahalegintzen naiz beti. Gainera, deskonektatu nahi badut bai ala bai kanpora joan behar dut, etxean ezinezkoa da eta!

Bestela, ezer gutxi. Parranda bat edo beste egiten dut udaran, baina, orain, lanarekin, hori ere gutxi. Zahartzen ari gara eta kitto...

Miren Iruretagoiena



“Unibertsitateko bidaiari etorri nintzen Txinara”

Uda polita Shanghai aldetik, G20ko bilera Txinan dela eta airea ez da besteetan bezain kutsatua egon, beraz ezin kexatu. Uda opor garaia izan ohi da, baina gure kasuan opor egun bat ere ez dugu izan.

Unibertsitateko bidaiari etorri nintzen proiektuak hemen garatzera KIMMUREkin. Horietako bat Txinako merkatuan inpaktu positiboa izateko proposa zela eta hemen enpresa sortzea erabaki genuen. Hori sustengarri egiten buru belarri jardun naiz.

LEINN gradua ere, dagoeneko errealitate bihurtu da Txinan; hango gazte ekintzaile generazio berria bultzatu nahian...

Eñaut Marti





Estropadak erromesaldi



Xabi Iburguren Azkue

Estropadak antiyora jungo al gaitun? Baina Compostelara e! Baietz eta ezetz. Ezetz eta baietz. Nola? Nondik? Zergatik? Noiz? Brometan hasitako kontuarekin, ekin genion uda honetan egingo genuen erromesaldiari. Hala ere erromesaldia ez da ez, motxila bizkar gainean hartu eta egun luzeetan ibiltzea bakarrik. Galdetu lagun eta etxekoei, apiriletik hona gu aguantatzea, bada nahikoa erromesaldi.

Estropadak Galizian diren aitzakiarekin, azken urteetan joanak ginen automobilez Santiago aldera. Ostiral arratsaldean abiatu, estropadetarako iritsi eta igande iluntzerako buelta. Behin Galizian olagarro eta marisko pintxo-poteoa egin behar. Estropadetan orru batzuk botaz, tentsioak askatu eta mutur luze edo motzagoekin tartean

“Bero, euri, haize eta bestelakoak kontuan gehiegi hartu gabe abiatu ginen”

trapuren batekin itzuli izan gara.

Aurten, ordea, ezberdina izan da. Estropada asteburuko plana ez da ezberdina izan, ez. Pintxo-pote eta estropadetak builak bere horretan mantendu ditugu. Bizkar gainean zortzi kilo hartu eta Santanderretik Compostelara oinez joatea erabaki genuelako ezberdina. Apiriletik bidaiari hasi arteko onik ez dugu izan. Motxilan zer sartu, zer ez... Bero, euri, haize eta bestelakoak kontuan gehiegi hartu gabe abiatu ginen. Santander atzean utzi eta 559 kilometrotan izan ditugu abenturak, egin ditugu lagunak eta konpartitu ditugu esperientziak. Eta zenbat aldiz entzun ote genuen *Buen camino!* 19 egunetan egin beharreko kilometroak 18 egunetan egin nahi eta jo eta su. Jabetu ginen arte, kalkulatuak kilometro kopurua baina 30 gehiago egiteko genituela. Matematikari txarrak izan biak, izan ere, nahi eta espero baina egun bat gehiago egin behar!

Esperientzia neketsua bezain bikaina eta, itzulera, kiloka oroitzapenez betetako motxilarekin. Bidean zehar topatutako jende, leku eta momentuengatik eta horrelako konpainian, ni santua berriz ere besarkatzeko prest!



Olatz Mujika Etxeberria

Estropadak baietz. Nola ez ba! Gero ordea zalantzak. Berrutik makina bat aldiz pasa zaigu geroztik baietzko hura. Garaiz iritsiko ote gara estropadetarako? Erronkari ez ote genion guk azkar samar erantzun? Bi aldiz pentsatu gabe prestatzeari ekin genion! Hainbat entrenamentu, mendi bueltak bizkarrean ur botilak genituela ibili eta mila aholku entzun eta gero, iritsi zen eguna. Santanderretik goizeko seiatarako abiatu eta kosta zitzaigun, bada, hiriburua atzean uztea.

Etapa guztiak desberdinak bezain berdinak. Goizean goiz jaiki, aterpeteen iluntasun eta lagunengatik zurrunka festen tartean zakua egin, gosaldia eta martxa! Eguneko kilometroak egin ahala, ezagutu ditugu leku eta jende jator askoak. Eguraldi bero eta etapa neketsuaren ostean, fruta balkoitik behera bota diguten herritarrak ere bai.

“Santanderretik goizeko seiritan abiatu eta kosta zitzaigun, bada, hiriburua atzean uztea”

Baita oinetako minak eta ezinak genituenean, berak ziztuzten botikinak eskaini dizkigutenak ere. Behin etapa amaituta, aterpetxea bilatu behar. Eguneko nahiko kilometro egin ez eta batetik bestera joan behar. Zeinen gus-tura hartzen genituen hondartzetako bainu fresko eta aterpetxeetako dutxa hotzak.

Ibilbide ederra izan da, ez bidean zehar herri eta bide zoragarriak pasa ditugulako bakarrik, baita egin ditugun jatorri ezberdinetako lagunengatik ere. Etapa bat eta esperientzia bat baina gehiago elkarbanatu ditugu haiekin. Tartean, indio-ingeles ez ere uste baina hobeto moldatzen ginela jabetzeko aukera izan dugu.

Zer sentsazioa horrenbeste egunetan zain egon ostean Compostelako *Santiyora* iristea. Badu ibilbidea egiteak eta hiriburura sartzeak nolabaiteko zirrara eta zer esanik ez lagun, familia eta gertuko ongi-etorri eta zorion mezuak jasotzeak ere!

Kaixo Washington!



Ander Errasti

Askok ez dakite Euskal Herria existitzen denik ere. Galdera asko egin dizkigute, interesa piztu diegun seinale.

Nkainaren 27ko goizeko 4:30ak dira. Urduritasuna eta aldi berean goz elkartu gara. Abenturaren ideia nagusiak ezagutu arren, bertara iristean azalpen gehiago izango ditugulakoan sartu gara autobusean, Bilboko aireportura bidean. Isiltasuna da nagusi. Tartean aurpegi ezagunak. Aireportura iristean, lehenengo hitz trukaketa izan dugu baina oraindik *kaixo, kaixo* horretan geratu da.

Urtero, Washington DC-en ospatzen den *Smithsonian Folklife Festibalean* parte hartzeko aukera izan dugu. National Mall-ean –Washingtonen bihotzean, Capitolio aurreko zelaietan– eraiki dituzten karpa eta postu ezberdinetan. Bertan, euskal tradizio, ohiturak eta ofizioak; ontzigintza, ehungintza, buztigintza, sukaldaritza, pilota, herri kirolak, kantua, dantza, musika, bertsolaritza, euskara... jendeari erakutsi dizkiogu. Horretarako, hitzaldiak, azalpenak zein workshopak, denetik egin ditugu.

Jende asko inguratu da egunero ekitaldiak ikustera, goatzera eta probatzera. Gerturatu direnek, interes handia erakutsi dute. Askok ez dakite Euskal Herria izan badenik ere. Galdera asko egin dizkigute, interesa piztu diegun seinale. Arrantza lepota jarri eta momentu batean bada ere, euskaldun sentiarazi ditugu amerikanoak. Esperientzia aberasgarria izan da.

Eguneroko eginbeharrak bukatu ondoren, hotelera joateko autobusean sartu gara, gure arteko elkarriketak areagotu dira. Afaltzeko orduan, mahaietan tartekatzen hasi gara gure artean eta konfidantza handitzen goaz. Afal osteko *society* gelak ere gauza asko konpartitzeko aukera eman digu. Nire ustez, bidaiako unerik berezianak hor bizi izan ditugu. Elkar ezagutzen ez genuen jende talde bat, familia txiki bat izatera pasa garelako, eta momentu on asko elkarrekin bizitzeko aukera izan dugulako.

Egunak joan, egunak etorri, konturatzerako bueltatzeko eguna iritsi zaigu. Bizitako esperientziak, momentuak, oroitzapenak eta bizipenak gure bihotzeko maletan gorde eta beste bat arte esateko unea iritsi zaigu. Agur Washington!



Jon Garate

Lehenengo jakin, gero hitz egin

Nork esan behar zidan niri karrera amaitu eta irratian hasiko nintzenik lanean? Irratiak ez nau inoiz erakarri. Are

gehiago, unibertsitatean, irakasleak galdetutakoan, ez zitzaidala batere gustatzen erantzuten nion. Orain arte, ez nuen sekula irratiarekin kontakturik izan. Unibertsitatean ere, irratigintza landu zutenean, ni kanpora joan nintzen. Herbehereetara, Erasmus.

Hala ere, begira gauzak nola diren, irratian amaitu dut. Abuztuan, zazpi hilabete bete ditut Euskadi Irratian. Eta aurreiritziekin askotan gertatzen den bezala, honetan ere, kale egin dut. Nire harridurarako, irratia asko gustatu baitzait.

Hilabete hauetan *Amarauna* eta *Goizak gaur* saioetan ibili naiz. Magazine batean eta albistegietan. Lana gogorra da eta tentsio handikoa. Izan ere programak zuzenean izaten dira eta ordurako denak prest egon behar izaten du. Hala ere, oso pozik aritu naiz. Lankide bikainak izan ditut alboan eta lana ere esker onekoa da. Kanean jendeak esaten dizu: *Atzo entzun zintudan eta oso ongi, gustatu zitzaidan!* Beraz, apuntatu dut ikasi dudana azkenengo lezioa: lehenengo jakin eta gero hitz egin!

“Bartzelonan euskal komunitate zabala dago”

Miquel Àngel Lozano

Euskara ikaslea

Euskaldun berria da Miki Lozano, baina ez da Euskal Herrian bizi. Bost urte daramatza Bartzelonako hizkuntza eskolan euskara ikasten. Urtean hainbatetan etortzen da Oriora, eta orduan praktikatzeko aukera izaten du.

M. GARCIA

Gironako herri arrantzale batekoa da Miquel Àngel Lozano –Palamós, 1977–. 17.000 biztanle ditu haren herriak; taina eta azpiegitura aldetik Zarautzekin konparatu badaiteteke ere, izaeraz Orioren antza handiagoa du, kultura arrantzale handiko herria baita. Bartzelonan bizi da Lozano, eta euskara ikasten daramatza bost urte. Euskal Herrikanpo euskara ikastearen esperientzia kontatu dio KARKARARI.

Noiztik etortzen zara Oriora?

Lehen aldiz 2007an etorri nintzen Oriora, nire bikotekidea, Belen Casado, hemengo delako. Hortik aurrera urtero etortzen naiz hainbat aldiz, urte sasoi desberdinetan. Abuztuan, Gabonetan, Aste Santuan... etortzen gara.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

2011n hasi nintzen ikasten. Bartzelonako hizkuntza eskolan eman nuen izena. Hizkuntza eskolak bost urteko programa du euskaraz ikasteko, eta bosgarrena egingo dut nik orain, irailtik aurrera.

Zerk piztu zizun euskara ikasteko harra?

Batez ere, jendea ulertu ahal izateak. Nire bikotekideak lagunekin euskaraz hitz egiten du, baina nire presentzian hizkuntza aldatzen dute. Nire interes handiena jendeak bere hizkuntza ez aldatu behar izatea zen.

Bestalde, hemen ume txikiekin euskaraz hitz egiten da gehienbat. Katalunian ere gertatzen da hori. Bikotekidearen ilobekin harreman hobea edo gertukoagoa izateko euskaraz ikasi nahi nuen.

Zaila egiten zaizu Euskal Herrikanpo euskara ikastea?

Bai, hori da zailtasun handiena. Ez da gauza bera hizkuntza bat testuinguru linguistikoan bertan edo hortik kanpo ikas-

tea. Azken finean, pixka bat antinaturala da.

Berez, bost urteko ikastaro horren amaieran EGAREN pareko maila lortzen omen da helburua, baina hizkuntza eskolako irakasleak esaten digu ez dela posible maila hori lortzea euskal herritikanpo ikasita. Ez da errealia. Gure maila ez da hemen –Euskal Herrian– ikasten dutenena bezain ona.

Bartzelonan baduzu euskara praktikatzeko aukerarik urtean zehar?

Etxean praktikatzen dut gehienbat, eta baita hizkuntza eskolako lagunekin ere. Horrez gain, Bartzelonan euskal komunitate zabala dago eta euskal etxean euskaldun askorekin topa zaitezke. Praktikatzera joaten naiz hara.

Kontzertuak, hizaldiak... denetarik egoten da euskal etxean. Eta hizkuntza eskolako euskara sailak ere antolatzen ditu jarduera kulturalak. Jarduera horiek ere oso baliagarriak dira euskara erabili eta praktikatzeko.

Bestalde, eskolak badu komunitate zabal bat eta ikasle ohiak urtean pare bat alditan etortzen dira gurekin mintza-praktikak egitera.

Ikastarotik kanpo ere ba al duzue mintzapraktika talderik?

Ez, normalean ikaskideekin egiten dut mintzapraktika.

Gure eskolan klaseak ez dira ohikoak, ahozko mintzaira asko lantzen dugu. Euskal Herriko ikastaroetan, gehiengotan, titulu bat ateratzea da helburua, lanpostu asko lortzeko eskatzen baitituzte.

Baina Bartzelonan ez daukagu behar hori. Nire klasekideek eta nik euskaraz ikasteko arrazoiak edo motibazioak beste mota batekoak direla uste dut. Batzuk hizkuntzalariak dira eta hizkuntza gutxituetan interesa dutelako ikasi nahi



Euskaldun berria da Lozano, Bartzelonan ari da euskara ikasten. KARKARA

“Ez da gauza bera hizkuntza bat testuinguru linguistikoan bertan edo hortik kanpo ikastea. Pixka bat antinaturala da.”

dute; beste batzuk, nik bezala, familia edo bikotekide euskalduna dugulako; eta badira Euskal Herriko euskaldunak direnak baina hizkuntza maila hobetu nahi dutenak.

Beste nonbait euskara ikastea agian arraroagoa litzateke, baina tradizionalki Katalunian badago euskararekiko eta Euskal Herriarekiko interesa, ezta?

Baskitis tradizionala deitzen diot nik, gaixotasun bat dela esaten dut txantxetan. Hala ere, gauzak aldatzen ari direla uste dut. Azken urteetan nabaritu dut Euskal Herria ere Kataluniari begira dagoela, erreferentzia bezala hartzen duzuela.

Hemen ere hasi da jendea Katalana ikasten.

Bai, hori da. Hala ere irudipena dut jende gehiago dagoela Katalunian euskara ikasten, hemen katalana ikasten dutenak baino. Katalana, gainera, oso erraza da zuentzako eta abantaila handia daukazue ikasterako orduan.

Euskaraz jakin gabe etortzen zinenean eta orain euskara ikasita, asko aldatu al da zure esperientzia herrian?

Ni erosoago nago orain, euskara jakiteak hemengo errealitatera gerturatzeko beste modu bat ematen dit. Ez da hizkuntzagatik bakarrik, kultura eta jendea hobeto ulertzeko balio dit.

Bestalde, Orion azken urtean aldaketa nabarmen bat eman da: euskaltegia. Euskaltegia behar bat zen Oriorentzat eta bertan ikasten hasi diren pertsona batzuk ezagutzen ditut. Euskararen normalizaziorako beharrezkoa dela iruditzen zait. Hemen bi komunitate linguistiko banatuak daude, eta Katalunian, adibidez, ez da hainbeste bereizten. Baina hori aldatzen ari dela esango nuke.





GURE ESKU DAGO EGUNA

Abuztuaren 5ean jarri genuen Gure Esku Dago eguna ospatzeko zita. Aian mugimenduari indarra eman eta herritarrak hurrengo urtean ospatu nahi dugun kontsultan parte hartzera gonbidatzeko asmoz antolatu genuen eguna.

Igerilekuan hasi ginen, eguraldia lagun genuela, gaztetxoentzako hainbat jolas egiten. Arrakasta handien izan zuena, dudarik gabe kukaña izan zen. Hasi ginenetik bukaerara arte ilara luzean zain egon ziren gazteak beraien txanda iritsi arte. Ederki gozatu zuten gainera!

Goizean zehar berriz, aurpegiak margotzen, globoekin jolasean, zaku karreretan... jardun ginen.

Arratsaldea festa giroan sartzeko, *Jainekin* txaranga izan genuen, igerilekutik hasi eta herriko tabernak pasaz jendea eta herria alaituz. Kalejiran ibili ginen batetik bestera, herriko hainbat emakumek eginiko bandera astinduz!

20:30ean eguneko momenturik garrantzitsuena iritsi zen. Gure Esku Dago Aia osatzen dugun kide guztiak oholtza gainera igo ginen gure aldarrikapena plazara gerturatu zirenekin partekatzeke. Horretarako elkarteko kide batek guzti artean adostutako aldarrikapena irakurri zuen. Baina hor ez zen bukatu, horrez gain, Aiako bi alderdi politikoetako kideek, bien artean adostutako testu bat ere irakurri zuten elkarteari babes eman. Momentu hunkigarria izan zen. Segidan, gerturatutako guztiekin argazkia atera eta sinadura bilketari ekin genion. Gauean, Sahara eta Gure Esku Dagoen alde ehunka desio su bola jarri genituen hegan, eta ondoren eguna amaitzeko dantzaldia izan genuen DJ Arosekin herriko plazan.

Herritarren parte hartzea handia izan zen eta eskerrak eman nahi genizkieke gerturatu ziren herritar guztiei, eta nola ez, Gure Esku Dago eguna ospatu ahal izateko lagundu diguten guztiei.

AIAKO GURE ESKU DAGO



San Donato eta San Lorentzo jaiak







Jai eguzkitsuak Aian

Uztailari agur esan eta abuztua hasten denean, udararen erdi-erdian, festan daude aiarrak. Sandonatoak eta sanlorentzoak dira herriko jaiak eta sei egunez ospatu dituzte aurten, abuztuaren 5etik 10era. Ohi baino egun bat lehenago hasi ziren jaiak, Gure Esku Dago egunarekin. Jolasak igerilekuan, pintxo potea eta argazki jendetsua izan zituzten egun hartan. Larunbatean, hilaren 6an, festei hasiera ofiziala eman zieten txupinazoarekin eta herri afariarekin. Igandean zen Donato Deuna eta egitarau oparoa izan zen Aian: pilota, trikiritxa, garagardoa, bertsoak... Hurrengo egunean, umeen egunean, jolasa izan zen nagusi. Festak amaitzeko egun bat geratzen zenean, artean, jai giroa zen nagusi. Toka, sardinak, puzgarriak eta mus txapelketa izan zituzten, besteak beste, bukaeraren bezperan. San Lorentzo egunarekin eman zieten amaiera jaiari Aiarrek; frontoia lepo bete zen bai goizean, pilota partiduekin, bai arratsaldean, herri kirolekin ere.





SU KIA
TABERNA JATETXEA

On agin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENJA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF. 943 832 128
ARRANDEGUIA, 1. BARRIA

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

Garbino Arregi

Moda de osagarriak

Herriko plaza, 5
635 706 265

juergandun goizez zabaldu!

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txakorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

ITZALA

kartetan jokatzen ari gara

tel. 943 83 12 59

HAIZE BERRI
taberna-jate-txela-kafetegia

Plater konbinatuak, bolakak, harburgesak, raziok, eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzuak

943 831 623

Osteko kaledegian, Etilerra 1

ostiralean pintxo potea!!

Gaztetan 2018

karkaras.eus

Eskaintza berria Eskaria

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoa, bentonak, aplikatutako eskuzko terapia, osteopatia

943 13 35 37
Aritza kalea, 11. behea

KAXAIO
PLADURRA ETA ESKAIOLA

Konponketa eta berrikuntza lanak pladurra eta eskaiolarekin

4josemaria@gmail.com

656 777 574

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

KOLON TXIKI
starkegia justus.eus

Herriko Enparantza, 4 ORIO

Tel. 943 83 00 44

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko Gertuko Tailerra

ZINKU

Igeltseritza orokorra
Etxeko aserferia mola guztiak fabrikak, barnu garak, igeltzua...

Ander Zinkunagui
667 740 279

Zaragueta Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuritza.net

ASADOR XIXARIO

Eusko Gudariaren Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - 0820

Izarra Elektrogailuak

BEEETI ESKAINTZAK!!

ORBEGOZO 55€ 20L

7Kg 1000r/min A+++ 289€ BALAY

800W + hagaxka + txikitzekoa 45€ FAGOR

1,85 289€ EDESA

TIEN 21 Eusko gudari, 44 • 943 833 881 **TIEN 21**

BODEGAS Gailur

CHATEAU BLANCO de EBBED
Tel./Fax 943 83 01 56
www.gailur.com

Arriabar Errizena

ZUDUGARAI

Galeriako Tractorina

Tel. 943 83 03 88
Fax 943 83 04 98
trukertrudugarai@euskalnet.net
www.trukertrudugarai.com



Begoña Goenaga 77an hasi zen kanpinera etortzen, bungalow batean dago orain. KARKARA

Udaran, kanpina etxe

Udaran edo urtean zehar kanpinean bizi direnak **kanpinero deitzen diegu Orion**. Urteak daramatzate etortzen, harremana egin dute oriotarrekin eta batzuk herrian bertan geratu dira bizitzen.

TESTUA: O. ARTOLA ETA M. GARCIA

ARGAZKIAK: KARKARA

Kanpineroak. Horrela deitzen zaie Orion urtero uda pasatzera herriko kanpinera etortzen direnei. Askok bizi osoa daramate etortzen, urte osoa –itxita dagoen hilabeteak izan ezik– pasatzen dute kanpinean batzuek, bertako kuadrilla egin dute hainbatek eta ez dira gutxi Orion bizitzen geratu direnak. Guztiak dira berdin gauza batean: udan –eta urteko beste sasoi batzuetan– Orioko Udal Kanpina dute etxe.

Haur txikiakin, kostara

Haur txikiak zituzten familiak etortzen ziren kanpinera. 77an hasi zen etortzen Begoña Goenaga Lopetegi, Ibarrakoa da bera. Urte eta erdiko eta 4 urteko bi alabekin, eta 4 eta 5 urteko bi ilobekin etortzen zen. Karabana txikia zuten, mendi

aldean. *Bi ohe handi eta literak zituen, umeekin egiteko nahikoa.*

Marisa Urizar Beretxinaga eibartarrak ere 40 urte daramatza Oriora etortzen. *Alabak 4 urte eta semeak 6 hilabete zituenean hasi ginen etortzen*, dio. Orain senarrarekin etortzen da gehienetan, baina seme-alabek ere etortzen jarraitzen dute.

Gurasoekin etortzen zen Loitzune Amezti Fernandez –Ermuakoa da, baina Bergaran bizi da–: 34 urte ditu eta horietxek daramatza Oriora etortzen. *Kanpina txikitan askatasunaz niretzat, harreman berriak egiteko modua.*

Lasaitasuna eta erosotasuna

Kanpinean *bizitzetik* gehien gustatzen zaiena zer den galde-



Jaio zenetik udarak Orion pasatzen ditu Loitzune Ameztik. KARKARA

tzean, badira guztiek aipatzen dituzten hainbat gauza. Lasaitasuna da horietako bat. *Aspalditik ezagutzen dugu elkar heringoak* –dio Goenagak– *eta atea irekita utzi eta lasai joan naiteke badakidalako jende ona dagoela*. Kanpinera etortzea arnasa hartzea da beretzat, etxetik gertu badago ere, deskonektatzen laguntzen dio.

Bere oporrak nolakoak izango diren erabakitzeko aukera izan duenean Orio aukeratu du Ameztik, bere gurasoek bezala. Ume txikia dauka eta bigarrenaren zain dago, eta kanpin hau toki egokia iruditzen zaio: etxetik gertu eta hondartza ondoan dago. *Umea poziketortzen da eta familia bat bezala da kanpina*.

Erosotasuna eta gertutasuna, horixe da guztiek aipatzen dituzten beste bi ezaugarri. Hondartza, herria eta mendia, guztiak daudela gertu. *Euskal Herrian ez daude kanpin asko eta honen abantaila da dena bertan duela*, dio Urizarrek.

Kanpinero finkoak

Gure seme-alabak hemen hazi dira –dio Urizarrek–, uda osoa hemen pasatzen genuen. Batzuetan beste norabait joaten ziren egun batzuk pasatzera, baina gero Oriora itzultzen ziren. *Udako gure etxea hemen egon da beti*.

Gauza bera dio Goenagak. Ekainean etortzen ziren, umeek oporrak hartzen zituztenean, eta irailera arte egoten ziren kanpinean, umeak eskolan hasi baino egun batzuk lehenago arte. Orain ere antzera egiten dute, eta udaratik aparte asteburuetan ere etortzen dira kanpina irekita dagoen hilabeteetan. Martxotik aurrera etortzen dela dio Goenagak, *hotza egin edo beroa egin, tren eta autobusa hartzen ditut eta asteburua pasatzera etortzen naiz*.

Kanpineko ambientea oso polita dela dio Goenagak. Lehen aldiz etorri zenetik ia urtero errepikatu du. *Batzuk finko gauden hemen, kontratua egin ziguten urte osorako, eta kanpina irekita dagoen hilabeteetan, martxotik azarora, nahi dugunetan etor gaitzke*. Durangoakoak, Zumarragakoak, bilbotarrak... finko dauden denak Euskal Herrikoak direla dio Uriza-

“Kanpina txikitik askatasuna zen niretzat, harreman berriak egiteko modua.”

LOITZUNE AMEZTI

“Aspaldi ezagutzen dugu elkar, eta atea irekita utzi eta lasai joan naiteke.”

BEGOÑA GOENAGA



Kanpin dendarekin etorri ziren lehenengoz Marisa Urizar eta bere familia. KARKARA

rrek, guztiok ezagutzen dugu elkar.

Kanpin dendarekin etorri ziren lehenengoz, baina Orion pasatzen zuten hirugarren udan ekaitzak harrapatu zituen Urizar eta bere familia: *abuztua zen, Ama Birjinaren eguneko aste hura. Kanpin denda hautsi zitzaigun eta nire aitak esan zuen ez zela berriz dendarekin etorriko.* Hurrengo maiatzean erosi zuten karabana. Aurrerago beste bat erosi zuten, handiagoa, eta duela hiru urte inguru *mobilioa* ekarri zuten.

Partzelaz mugitzea ohikoa izan da beti kanpineroentzat; kanpinak urteetan zehar izan dituen aldaketekin batera, beren *etxeak* ere tokiz mugitu dira. *Begoñaren parean genuen karabana lehen* –dio Urizarrek–, *orain Loitzuneren aurrean gaude.*

Mendi aldera zuten hasieran karabana Goenagak eta bere familiak, baina hortik mugitu eta komunen aldamenean urte asko egon dira, Araba eta Bizkaia kaleetan. Duela hiru urte mugitu ziren orain dauden lekura, lehenbizi karabanarekin eta bungalowera gero. *Lehen abantzea urte guztian jarrita izaten uzten ziguten, baina orain urtero-urtero kendu behar da. Bungalowak jarri zituztenean, erosotasunagatik, bat hartzea erabaki nuen.*

Herritarrekin harremanak

Herrian aski ezaguna da kanpineroen bizimodua. Askok, haurtzaroan udak Orion pasa zituztenek, bertako kuadrillak zituzten. *Herriko jendea ezagutzen genuen* –dio Ameztik–, *igerilekura eta tenisera etortzen ziren kanpinera. Harreman handia egiten genuen herritarrekin, agian orain dagoena baino handiagoa.*

Goenagaren alaba Orion bizi da orain. *Ez da hemen geratu-tako kanpinero bakarra, kanpinean hazi diren eta Orion geratu diren neska-mutil dezente daude.*

Baina lehen haur eta orain guraso direnak ez dira bertara egin diren bakarrak. Jende asko ezagutzen du Goenagak herrian. *Bat gehiago sentitzen naiz Orion; Tolosakoa naiz berez, baina tolosarra baino gehiago hemengoa sentitzen naiz.*

“Gure seme-alabak kanpinean hazi dira, udara osoa hemen pasatzen dugu.”

MARISA URIZAR

ZENBAKIA

38

Kontratu finko. Martxoaren 1ean kanpina irekitzen denetik azaroaren 14ean ixten den arte bertan egon daiteke bezeroa kontratu horrekin. 150 inguru ziren garai batean, baina kanpina txikitzearekin batera kontratu kopurua ere gutxitu da. *Mobile* hometan daude gehienak, eta badira karabana eta bungalow etan dauden batzuk ere.

Lizaso
dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 18

Eusko Gudari, 48

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176
Herriko enparantzan

lzozki naturalak - Opilak



943831048
610697668

www.fotoramiro.com



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943 572 083
FAX - 943 571 190
l.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

Portu
ERRETEGIA



Sando Erreka Auzoa, 49
943 89 44 66
20809 AIA - ORIO

*luzirik laserko oinetan
jantzi erretak erretak noren*

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 83 59 00

EKILORE GARBIKETAK



626417841
ekilore@ouflook.es

URAITZ
lurrindegia
jantzi sagarriak



Erulatas - Tfno: 943 83 18 97

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK

ROSA



GARBIÑE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 41
www.encebook.com/roshandondoko
8104 DESKONTILIA FAMILIA UGARENTZAT

ARISTERRAZU
jatetxea



Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Gabon
TABERNA



- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitarlekoak

943 83 06 09

EXP



ELEKTRIZITATEA
Ande Exposito
943 831 774
800 856 728
anderexpoelektrizitatea@gmail.com

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO

Orio eta arrauna: urtez urte egindako historia distiratsua

Azken urte hauetan herriko jendearen ahotan entzun izan dut Orioko traineruak oriotarrez osatuta egon behar duela eta bidea erraztu behar zaiela hori lortu nahi duten gazteei



Antonio Campos

spaldi honetan buruko mina sortzen didan kontu bat darabilkit buruan

bueltaka eta, inoren aurka edo alde jarri gabe, zuei ondorengo kontatzeko asmotan natorkizue gaurko honetan: gure gazteen protagonismoa goi-mailako traineruan.

Edozerekin hasi baino lehen, arraun klubak umetatik hasi eta arraunlariak senior bilakatzen diren artean egiten duen lana izugarritzkoa dela aitortu nahiko nuke. Hainbeste haur, material, entrenatzaile, helburu, lorpene... ez baitira errazak bide egokitik kudeatzen eta badirudi, gurean, nahiko ongi egiten dela lan hori. Baina bada –gure azken urte hauetako gazteen egoera ikusi eta ezagututa nabil oraingo honetan idazten– hobetzeko antzematen dudan zerbait: jubenetatik eliteko kirol indartsu batera egiten da jauzia eta behar bada, jauzi hori egiten, oraindik, ez dugu asmatu.

Azken urte hauetan herriko jendearen ahotan entzun izan dut –ni neroni barne– Orioko traineruak oriotarrez osatuta egon behar duela eta bidea erraztu behar zaiela hori lortu nahi duten gazteei; noski, gazte horiek beharrezko maila baldin badute. Argi utzi beharrekoa delakoan nago, oriotarra esaten dudan bakoitzean, Orioko Arraun Elkartearen sortu eta arraunlari bihurtzen den edonori erreferentzia egiten ari naizela.

Aurten, eskatzen ari ginen hori, abian jartzen hasi dira zuzendaritzatik, Aizperro eta bere mutilak medio. Zein da ondorioa? Gu –arraun zale porrokatuak– berehala urduri eta kezkatuta jartzen hasi garela eta bat baino gehiago, baita haserre ere. Agian, aspaldiko garaietako filosofia –helmugara

lehena ez iristea, galtzea da; arraunnean ez dago 2. edo 3. edo 6. posturik – oraindik ere presente daukagulako sortzen zaizkigu haserre, zailantza, urduritasun... horiek. Baina kontuan eduki behar dugu, gainerako klubak ere, lanean ongi dabiltzala eta gaur egungo garaiak ez direla Kanpa traineruak 90. hamarkadan lortutako bandera haien guztien garai berdinarik.

Hala ere, lehena iristea ez den beste guztia galtzea dela pentsatzeak, Orioko Arraun Elkarte erraldoi egin duelakoan nago eta, beraz, hori ez nuke nahiko aldatzea. Bai ordea, funtzionamenduan jartzen diren proiektuei konfiantza eta betetzeko denbora tartea uztea. Azken finean, babarrunak eltzetik garaia baino lehen ateratzen badira, beti gogor eta jan ezinda ibiliko gara; alfer-alferrik zakarretara botatzen. Gure arraunlari gazteekin ere berdina gertatzen da: aukerarik eman ez eta badoaz aukera emango dioten beste norabait.

Guztiok dakigun moduan, historia ez da urte batean idazten; urteen poderioz baizik. Ziur naiz Hondarribiak, Urdai-baik edo beste edozein tripulaziok Oriok bezain beste Kontxa irabazterako, Oriok ere irabaziko dituela beste hainbat.

Oriotarrok pazientzia pixka bat gehiago behar dugu. Zaila izaten da egoera, badakit, baina arraunlariak euren lana ongi egiten duten heinean, gure klubaren historia handituz joango da pixkanaka eta uste dut, zuzendaritzak, Aizperrok eta bere mutilek lana patxadaz egiten badute, inolako gain-presiorik gabe –arraunlariak bizi duen egoeran nahikoa betebeharrak eta presio dituelako– lortuko dutela guztien artean babarrunak eltzetik ongi egosita ateratzea. Denbora da behar dutena; pazientzia eta nola ez, gure animoak!

Aupa Orio!

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80 / Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

arkaitz taberna
orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

Seguros Bilbao

Orioko ordezkaria

Santi Barranco
Telf.: 618581398
Artzaga, 2 - 2ª eskerra
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

ORIA
hortz klinika

Orio Hortz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jartzen du martean.
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurrerakizuneari sarrera dagoela.

Amantzale kalea, 63 behea
20810 Orio
Tel.: 943 83 36 45

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

Tel. 943 835 980 | www.2gurpil.com | bigurpil@hotmail.com

edertegia
ANTILLA
juletegia

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 28 00

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

30eko dekoetara familia egonien saiatzeratik

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889 | argine/jantziak

GARMENDIA

HIGIEZIN AGENTZIA - AHOKLARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendiagestion.com

kutixi
kafetegia
GOSARI GONDOAK

Artzaga 9, 20810 Orio
Tel.: 943 13 13 17

MENDIZABAL
ARozTEGIA

Neurriko armarriak eta egurrak

943 831 175 | Altxerri bidea
645 708 491 | 8a6-Ajal etxea
mendizabal.net | 20810 Aia-Orio



“Erraustegiagatik kezkatuta egoteko arrazoiak daudela uste dugu”

Goretti Aranburu, Gurutze Uria eta Alex Marrodan
Medikuak

Azkenaldian jende askoren ahotan dagoen gaia da erraustegiarena. Osasunean izan dezakeen eraginak kezkatzen du herritar asko, eta eragin horri buruz hitz egin du, hain zuzen, KARKARAK herriko medikuekin.



KARKARA

O. ARTOLA ETAM. GARCIA

Ikerketak irakurri eta isuritako produktuak zein diren eza-gututa, Zubietan eraikitzen ari diren errauskailuak osasunean eraginak izan ditzakeela ondorioztatu dute mediku hauek. Goretti Aranburuk –Zarautz, 1960–, Gurutze Uriak –Zarautz, 1965–, eta Alex Marrodanek –Durango, 1973– kezkatuta egoteko arrazoiak baditugula uste dute.

Zer eragin ditu errauskailuak osasunean, zer gaixotasun sortu ditzake?


Irakurri ditugun ikerketen arabera eta garrantzitsuena aipatzearren, hainbat gaixotasun sor ditzake: minbiziak orokorrean, –batez ere urdailekoa, kolorektala, biriketako eta gibealekoa–, leuzemiak, linfomak eta sarkomak. Horrez gain, joera duten emakumeek bularreko minbizia izan dezakete, fetuetan malformazioak ager daitezke –erbi-ezpaina, arantza bifidoa...– eta umeez alterazio hormonalak izan ditzakete –sexualak eta tiroidekoak–. Biriketako gaitzak ere ager daitezke.

Orokorrean, hilkortasun tasa handitzea eragin dezake errauskailu batek, batez ere, minbiziagatik.

Zergatik? Zer da kutsakorra dena?

Errauste planta batek funtsean sortzen dituen gaiak hauek dira: errauskak, zepak edo eskoria eta gasak. Errauskak eta zepa dioxinaz eta metal astunez osatutako hondakinak dira. Azken hamarkadan, teknologiak hobetu direla eta, tximinia-tik isuritzen diren kopuruak –merkurioarena izan ezik– txikiagoak dira, baina errautsetan gehiago ikusiko dira eta in-

“Orokorrean, hilkortasun tasa handitzea eragin dezake erraustegi batek, batez ere minbiziagatik.”



Erraustegiaren eragin mapa GuraSOSen arabera. GURASOS

gurumena kutsatuko dute.

Oso toxikoak dira sustantzia horiek. Elikadura-katean txertatzen dira eta zenbat eta gorago jo katean, geroz eta maila altuagoan aurkituko dira.

Dioxinak gantzetan disolbatzen dira eta egonkortasun handikoak dira, gorputzean duten bizitza-maila batz besterik 7 urtekoa da. Bizitza maila odolean dagoen sustantzia batek kontzentrazio maila erdira jaisteko behar duen denbora da.

Gasekin, besteak beste, partikula ultrafinak isurtzen ditu erraustegiak. Bronkioak eta birrikak ez dira gai sustantzia horiek geldiarazteko eta odolera erraz iristen dira, beraz, kaltegarriak dira osasunarentzat. Bestalde, beste hainbat sustantzia ere isurtzen dira gas moduan: nitrogeno oxidoa, nitrogeno dioxidoa –bi horiek gas toxikoak dira–, aerosol azidoak, anhidrido karbonikoa –CO₂, negutegi efektua sortzen duena–, metal astunak, dioxinak, furanoak, hidrokarburo polizikliko aromatikoa...

Tximiniatik irten daitezkeen gai ezezagunak ere asko dira, eta ezagunak bezain toxikoak izan daitezkeela estimatzen da.

Zertan oinarritzen zarete eragin horiek dituela ziurtatzeko?

Hasieran esan dugun moduan, irakurri ditugun ikerketetan oinarritzen gara. Espainian egindakoak eta ikerketa internazionalak irakurri ditugu. Batzuk nahiko berriak dira eta aurten ere beste ikerketa batzuk aterako dituztela jakin dugu. Ikerketa horiek denon eskura daude interneten, ira-

kurri nahi dituenarentzat.

Eragin horiek izateko arriskua zenbatekoa da Aian eta Orion?

Dakiguna da 0 eta 5 kilometroko tartean hilkortasun tasa %10 eta %15 artean igotzen dela. Orio 8 kilometro ingurura dago eta arriskua txikiagoa izango da. Zehazki zenbatekoa den ez dakigu baina ez da zero izango. Ikerketek diote 10 kilometroko perimetroan eragin negatiboa dutela errauskailuek.

Errauskailuaren alternatiba egokiena zein da zuentzat?

Zabor gutxiago sortzea, berrerabiltzea eta gehiago birziklatzea.

Zuen iritziak bat egiten du Orion errauskailua eraikitzearen aurka dagoen taldearen iritziarekin?

Uste dugu kezkatuta egoteko arrazoiak badaudela, osasunari izan ditzakeen eragin horientatik.

Hitzaldi informatibo bat antolatzen ari zarete talde horiekin irailerako. Zertan datza hitzaldiak?

Xabier Mitxelena eta oraindik zehaztu gabe dagoen beste hizlari bat etorriko dira irailaren 14an, 19:00etan Kultur Etxera.

Batak errausketari buruz hitz egingo du eta besteak gaiaren inguruan egin diren ikerketei buruz. Xabier Mitxelena OEIT – Osasuna eta Errausketa Ikerketa Takdea – taldeko medikuetako bat da, baita International Society of Doctors for The Environment, ISDE taldekoa ere.



Hilarriak eta marmolak Azpiroz S.L.

San Esteban auzoa, 18 (Gileagasti baserria) Usurbil

Orioko eta Aiako hilerrietarako zerbitzua

- Hilarriak eta partzioak
- Harriaren inskripzioak
- Partzioetan mantentze eta garbitze lanak
- Argazki zeramikak

627467216

marmolesazpiroz@hotmail.com
http://marmolesazpiroz.wordpress.com



sinergia

FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net

Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

ANOBGAT TXIKI S.L

KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispilluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

PERTSIANAK

AKO MAN

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

IGLESIAS

SARRAILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@arrailagileak.es
ZOBIO ORIO

- ATAEK INKERTZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATAEK IXTERO MALOKURRI ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA

24 ORDUKO ZERBITZUA

Katu Moria

αΙΒΑΙΟΓΙΕΣΑ ΚΙΤΙΝΑ

ESTROPALARI, 10
20810 ORZO

Larriamioak
943 11 66 99 608 80 11 29

www.katumoria.com

libe

dietetika

elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO 943 53 64 94 :: 697 23 86 56
[sarra Aranzua kalea] libegarmendua@gmail.com

Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa

> Hileta zerbitzu orokorrak

> Zerbitzu iraunkorra

Harrespil

Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



Adof Hitler, 1936ko abuztuaren 1ean, Berlingo olinpiaden inaugurazio-ekitaldian.

1936ko udara bero hura, orain 80 urte

Oroimenaren kutxa

U dara berezia izan zen 1936koa, ezagutu zuten guztien gogoan iltzatuta geratu zen, bizitza aldatu egin zitzaizen-eta, goitik behera.

Uztailaren 18an, gerra bat hasi zen Espainian. Armadaren parte bat, Francisco Franco jenerala buru zuela, gobernu demokratikoaren kontra oldartu zen; eta altxamendu hark hiru urteko gerra ekarri zuen, euskaldunak ere bete-betean harapatu zituen.

Aian eta Orion, gazteak, batzuk, gerrara joan ziren; beste batzuk, soldaduskarako adinean zeuden kintoak, eraman egin zituzten. Elkarren kontra aritu ziren, tiroka. Haietako batzuk ez ziren sekula etxera itzuli, gerra frontean geratu ziren betiko.

Abuztuan, Ietik 16ra, joko olinpikoak izan ziren, Berlingoak, Hitlerren olinpiadak, munduan izan den gerrarik ankerren eta hilgarrienaren atari izan zen kirol lehia, bigarren mundu gerrarena. Bere ideologia kriminala erakusteko eta zabaltzeko erabili zituen Hitlerrek joko olinpikoak.

1936ko gerra hasi berriak Berlingo Olinpiadan parte hartzea galarazi zion oriotar bati, Inazio Sarasua arraunlariari. Hura izango zen Orioko lehenengo kirolaria joko olinpikotan parte hartzen. Ezin izan zuen. Espainiak ez zuen ordezkariarik izan olinpiada hartan, egun batzuk lehenago hasitako gerragatik. Bartzelonan olinpiada alternatiboa egitekoa zen, uztailaren 19tik 26ra, Hitler eta nazien olinpiadaren kontra protesta egiteko.

Irailaren 20an, faxistak sartu ziren, Aian Andazarrate aldetik eta Orion Igeldo aldetik. Francoren armadako soldaduekin batera zetozen falangistak, erreketek eta Marokotik

ekarritako moroak. Haiei aurre egiten saiatu ziren Errepublikaren aldekoek inprobisatutako konpainiak, baina ezinezko zeregina zuten hura. Eskuindarren armadak alemanen eta italiarren laguntza ere bazuten, armatan eta soldadutan.

1936ko irailaren 20tik aurrera, gauzak oso bestela izan ziren bai Aian bai Orion. Aurren-aurrena, udala gobernatzeko herritarrak aldatu zituzten. Gizon gehienak ordurako alde eginak ziren, badaezpada ere, lehorretik Bizkaia aldera edo itsasoz euskal iparraldera. Arrantza-ontziek, arrainak ekarri beharrean, gizonak eraman zituzten, ihesi. Etxean geratutako emakume batzuek, berriz, zigorra jaso zuten: jende aurrean kaskamotz ibiltzea. Estropadarik ez zen jokatu inon; gerra giro hartan inor ere ez zegoen arraunerako. Eta hiru urteko gerra hasi zen: hildakoak, alargunak, umezurtzak, gorrotoa eta, gerra bukatutakoan, 40 urteko faxismorik atzerakoiena.

Gerra-frontera joan gabe ere izan ziren hildakoak. Orion, bi: Jose Maria Carmona eta Teodoro Mitxelena. Oriotik eramanda hil zituzten. Horrek berdintzen ditu. Carmona alde batekoek eraman zuten eta Donostiako Ondarretako kartzelan hil; Mitxelena, bestekeok, eta Getariako kanposantuan hil. Horrek bereizten. Aian bat eraman zuten eta akabatu, Gabino Alustiza, orduan Aiako alkate zena. Hernaniko kanposantuan hil zuten.

Nolakoa izango ote zen orduko aiarren eta oriotarren bizitza, gerra hura sekula hasi izan ez balitz? Nola idatziko ote zen gure herriaren historia? Erantzun zehatzik gabeko galdera mingarriak, 80. urteurren honetan, Jose Maria, Teodoro, Gabino, Florentino, Inazio... gogoan ditugula.



Gizartea Aiako edadetuenari etxera bisitan

Herriko gazteentzat ez ezik, helduentzat ere egun bereziak izaten dira festak, eta hala izaten da Aian ere.

San Lorentzo egunean Helduen eguna ospatzen da Aian. Egun horretan jubilatuen bazkaria egin ohi da eta Aiako edadetuenari bisita egin zaio aurtengo jaietan.

Maria Josefa Arrutik -Aldaxko Maria gisa ezaguna- 98 urte beteko ditu Irailaren 2an. Nekane Arrizabalagak, Aiako alkateak, bere etxera joan eta lore sorta oparitu zion.

Gizartea

Angela Loidik 100 urte bete ditu

Abuztuaren 22an, 100 urte bete zituen Angela Loidi Bizkarrondok. Angela Erreterian jaio zen, baina aita oriotarra zuen: Florentino Loidi Iturzaeta.


1916ko abuztuaren 22an, orain 100 urte, bixkiak jaio zitzaizkion Orioko bikoteari: Angela eta Jose Antonio. Familia, ordurako, Erreterian bizi zen. Aitak altzari-fabrika jarri zuen han; 1936an herriko alkate izan zen, gerra hasi zen urtean. Zorionak, Angela, urte askoan!

Ingurumena

Udalak lur azpian jarri ditu organikoa biltzeko edukiontzi gehienak

Hondakin organikoak biltzeko edukiontziak lur gainekoak izan dira orain arte Orion; baina, hemendik aurrera, gehienak lur azpikoak izango dira. Udalak bere garaian instalatu zituen lur azpiko edukiontzien artean, guneko bakoitzean, bi edukiontzi zeuden errefusarako eta bana ontzi arinetarako, paperetarako eta beirarako, argazkian ikus daitekeen bezala. Orain, berriz, Udalak erabaki du errefusarako lur azpiko edukiontzi horietako bat -erabiltzen ez zena- kentzea eta, horren ordez, organikoa biltzeko edukiontzia jartzea; hartara, lur gaineko edukiontzi marroi handi gehienak erretiratu ditu Udalak. Hondakin organikoen lur azpiko edukiontziak lehen bezalaxe erabiliko dira. Giltzarekin ireki behar dira eta lehengo giltza berak balio du. Giltza udaletxean eskatu behar da eta, organikoa birziklatzen hasi nahi duenak bertara joan besterik ez dauka. Giltzarekin batera, organikoa etxean biltzeko ontzi marroi bat emango diote.

HILA IRUDITAN



HASI TXIOKA

Zuk Berbiotus
Eneko Bidegain @enekobidegain - abu. 2
 Benito Lerbundiren kantaldia antolatu dute Saran, ta afixa frantses hutsez!!!

Zuk Berbiotus
Beria.eus @berria - abu. 8
Oiana Blanco judoka: @Sugoi66 -k #rio2016 -n egindako bidea aztertu du, eta Londresko bizipenak ekarri ditu gogora.

Zuk Berbiotus
Jabier Zabaleta @ja2er - abu. 17
 Abenduan ezagutu genuen @seriferinca, @karkaraeus-era etorri zenean @garabide-k gonbidatuta. Animo eta zorte on!



Kultura

Euskadiko txapelketa irabazi dute Alonso eta Aulestiak

Abuztuaren 15ean, astelehenean, Zeanurin jokatu zen Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXVI. txapelketa. Azken txapelketa zuten hura Julen Alonsok eta Eneritz Aulestiak.

Sei bikotek parte hartu zuten txapelketan eta hiru pieza jo behar zituen bakoitzak: porrusalda, fandangoa eta arin-arina. 144,30 punturekin, txapela irabazi zuten Alonsok eta Aulestiak. Lau urteko ibilbidearen ostean, adinez pasatzen direlako, txapelketetan parte-hartzeari utziko dio bikoteak. Zeanurikoa zen azkena, eta txapela jantzita utzi diote lehiatzeari.



Kirola

Sara Iparragirre Europako txapelaldunorde

Sara Iparragirre kide den Espainiako selekzioak Europako Txapelketako finala jokatu zuen Frantziaren kontra uztailearen 31n. Nagusitasunez irabazi zuten frantziarrek, 74-44; eta, finala galdu arren, Espainiako selekzioak txapelketa ona egin du oso. Selekzioko jokalaria izan da Sara Iparragirre. 17 urte ditu oriotarrik eta finalean zenbaki hauek lortu zituen: 7.4 puntu, 2.6 errebote eta 1.3 asistentzia egin zituen jokalaria. Aurretik, 2014an Hungarian jokatu zen 16 urte azpikoen Europako Txapelketan brontzezko domina lortu zuen; 2015eko 18 urte azpikoan zilarezko domina lortu zuen.

Gizartea

Gor Gazteriaren Estatu Kanpaldia

Abuztuko lehen astean Gor Gazteriaren IX. Estatu Kanpaldia egin zuten Txurrurkako aterpetxean. Pertsona Gorren Elkarteen Euskal federazioak antolatuta, 120 gazte inguru daude bertan egun batzuk pasatzen.

Hezkuntza

AEK arduratuko da euskaltegiak

Aurreko ikasturtean bezala, Urola Kostako AEK izango da euskaltegiak arduratuko dena aurrerantzean. Udalak lehiaketa publikoa egin du eta AEK izan da proposamenik onena aurkeztu duena.

Kirola

Kiroldegiko Itxiera Teknikoa

Urteroko lan teknikoak direla eta, Karela Kiroldegia abuztuaren 22tik irailaren 4a arte itxita egongo da, biak barne. Irailaren 5ean berriro zabalduko dira ateak, ikasturte berriari ekiteko.

Kultura

Antzerki topaketetako kartela

Azaroan Azpeitian izango diren XXXIV. Euskal Antzerki Topaketetako kartel lehiaketa irabazi du Marta Pineda aiarrak. Guztira 28 lan aurkeztu dituzte aurreko lehiaketara.

Kirola

Trophée Teink batel estropada

Sei jardunalditan Laredotik Hendaiara joatea du helburu estropadak. Urtero bezala, Orion geldialdia egin zuten, abuztuaren 4ean. Mutrikutik abiatu eta 13 milia egin ondoren, Oriora iritsi eta herrian pasa zuten gaua arraunlariek.

Kultura

Gure Bazterrak jaialdia Albaolan

Tokiz aldatu dute Gure Bazterrak festibala. Aurten ez da Orion izango Pasaiaiko Albaola itsas kultur faktorian baizik. Datuak ere aldatu egin dira, azaroan egin ordez urriaren 15ean egingo da.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Erosgai

■ Trastero edo bodega bat erosi nahi dut Orio erdigunean. Telefonoa: 663028365 -Lore-.

Elkarbanatzeko

■ Lanerako bulego handia daukagu, Orion, eta elkarbanatu egin nahiko genuke freelance edo etxetik lan egiten duen jendearekin.

Interesatuak deitu: 656309237 -Imanol-.

Salgai

■ Arrautza ekologikoak salgai: 5€ dozena arrautz. Tf: 656772428

Alokairuan

■ Pisua alokatzen da Aian. Telefonoa 660 884 3

19 -Ana Beldarrain-

■ Bi logelako pisua alokatu nahi dut urte osorako. Telefonoa: 607789644 -Izaskun-.

■ Pisua alokatu nahi dut udarako, uztaile edo abuztua. Tf: 636684891 -Juan Carlos-.

bitzari euskaldun bila, barra nahiz jangelarako. Asteburu eta ospakizunetarako. Interesatuak deitu: 943834322 ■ Ingelesarekin lagunduko nauen pertsona baten bila nabil. Goizetan, 8:30tatik 11:00etara. Telefonoa: 669781963

Lan eskaintza

■ Aiako jatetxe baterako zer-

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	05:20 eta 17:35	11:14 eta 23:39	☾
02	05:55 eta 18:09	11:50 eta ____	☾
03	06:27 eta 18:42	00:13 eta 12:24	☾
04	06:59 eta 19:14	00:46 eta 12:559	☾
05	07:30 eta 19:46	01:20 eta 13:33	☾
06	08:03 eta 20:20	01:54 eta 14:09	☾
07	08:39 eta 20:58	02:30 eta 14:49	☾
08	09:20 eta 21:44	03:10 eta 15:34	☾
09	10:13 eta 22:46	03:59 eta 16:32	☾
10	11:24 eta ____	05:02 eta 17:45	☾
11	00:09 eta 12:48	06:19 eta 19:03	☾
12	01:31 eta 14:00	07:32 eta 20:10	☾
13	02:33 eta 14:54	08:31 eta 21:02	☾
14	03:22 eta 15:40	09:20 eta 21:47	☾
15	04:05 eta 16:22	10:03 eta 22:29	☾
16	04:45 eta 17:02	10:45 eta 23:10	☾
17	05:25 eta 17:43	11:26 eta 23:51	☾
18	06:05 eta 18:24	12:08 eta ____	☾
19	06:46 eta 19:08	00:33 eta 12:51	☾
20	07:30 eta 19:54	01:16 eta 13:37	☾
21	08:17 eta 20:44	02:03 eta 14:26	☾
22	09:10 eta 21:43	02:53 eta 15:22	☾
23	10:14 eta 22:57	03:52 eta 16:29	☾
24	11:34 eta ____	05:02 eta 17:50	☾
25	00:26 eta 13:01	06:25 eta 19:15	☾
26	01:49 eta 14:16	07:45 eta 20:27	☾
27	02:54 eta 15:13	08:48 eta 21:21	☾
28	03:43 eta 15:59	09:37 eta 22:04	☾
29	04:23 eta 16:37	10:17 eta 22:40	☾
30	04:58 eta 17:12	10:53 eta 23:13	☾

ZAINZAKO BOTIKAK

IRAILA

- 1ean eta 2an, Lasa
- 3an eta 4an, Zulaika
- 5ean, Lasa
- 6an, Mutiozabal
- 7an, Lasa
- 8an, Etxeberria
- 9an, Lasa
- 10ean eta 11n, Izpizua
- 12an, Mutiozabal
- 13an eta 14an, Lasa
- 15ean, Izpizua
- 16an, Zulaika
- 17an eta 18an, Iriarte
- 19an, Etxeberria
- 20an, Lasa
- 21ean, Mutiozabal
- 22an, Zulaika
- 23an, Iriarte
- 24 eta 25, Larrañaga
- 26an, G. Artiñano
- 27an, Izpizua
- 28an, Zulaika
- 29an, Iriarte
- 30ean, Lasa

Izpizua: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

Telf: 943 89 04 16

Gabarra Jatetxea

Orio Menua

JON ANDER MAIZA AROZTEGIA

LEIHO ISOLATZAILEAK

PVC - ALUMINIOA

690 99 39 32 / 943 30 07 88

ventanasmaiza@gmail.com

www.carpinteriamaiza.com

Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO



Udako azken zine emanaldia

Colin Trevorrowek zuzendutako Jurassic World filma proiektatuko dute larunbat honetan hondartzan. Parque Jurasico filmaren laugarren zatia da. 2015eko ekainaren 11n aurkeztu zen filma, baina gidoiaren lehen zirriborroa hamaika urte lehenago idatzi zuten.

Orio

Hitzaldia

■ Irailaren 14an, erraustegiaren inguruko hitzaldia, 19:00etan, Kultur Etxean. Hizlaria: Xabier Mitxelena.

Azoka

■ Abuztuaren 27an eta 28an, Stock Azoka plazan, Arkupek antolatuta, 10:00etatik 20:00etara.

Zinea

■ Abuztuaren 27an, Jurassic World fil-

maren emanaldia, 22:15ean, hondartzan.

Bazkaria

■ Irailaren 2an, Marmitako afaria Bilduk antolatuta, Balea elkartearen, 21:00ean. Prezioa: 12 euro. Izen-ematea: Kolon Txikin abuztuaren 29a baino lehen.

Zabor bilketa

■ Irailaren 14ean eta 28an, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoren. Atera aurretik udaletxera deitu behar da zer bota behar duzuen jakinarazteko. Tf.: 943 830 346.

Aia

Podologoa

■ Irailaren 24an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Enpresentzako aukera



Zer da ekodiseinua?

Ekodiseinua aukera da enpresentzat, fabrikazio eta banaketa kostuak murrizteko eta produktuari balioa eransteko



Enpresentzako Zerbitzuak
www.enpresentzakoa.eus
Tel. 943890808



Guzarte mailan erantzulea den larialdea sustatzeko programa 2015



**Muxutruk loredenda
ezkontzak eta ospakizunak
zure momentu guztietarako loreak**



**keinu lorezaintza
lorategien diseinu eta
mantentze lanak**

Eusko gudari 11 ORIO
943834117-627630022-647028485

**JAR EZAZU
PUBLIZITATEA
KARKARAN.**

688 859 682

idurre